

P

A. ARIZMENDIARRIETA, EUSKALDUNEN ETSAI

Franco'k ba daki nor saritzen duen, eta nor gartzeleratzen. Eta egia aitortzeko, batez beste, gutxitan ibiltzen da oso oker.

Alde huntatik bidezkoa izan da dudarik gabe Arrasate'ko kooperatiben buruzagi dan A.J.M.Arizmendiarrrieta'ri ez dakit zein dominiar saritzea. Merezia du...Franco'ren aldetik !

Kooperatiben sua Gipuzkoa'n batez ere oso indartsu dagoen ezkerero, ba dirudi itsusi dala beren kontra ari izatea. Borondate onarekin ari dira hortan anitz euskaldun , zerbait onik egiten dutelakoan.

Baiña eskuindar eta españazale kooperatibismo horrek, zernai hortik esanagatik ere, kalte baizik ez digu ekartzen gaur, eta ez besterik akarriko biar ere.

Jakiña : ekonomiazko mailla eta bizimodua zerbait altxa dala kooperatiben bidez, egia da. Baiña hori berez on izan arren, zeren truke gertatu dan aztertu bear da .

Euskaldunak bi maillatan mogitzen dira, eta bi motatako problema dituzte . Arizmendiarrrieta'ren kooperatibismoak biak ukatzen ditu .

Alde batetik euskalduna bere erriko seme da . Bere etniazko lagunartea Euskalerrria da ; eta horatik dator kio euskaldunekiko anaiatasuna. Naturalezak eman digu euskaldun guziori lehenengo maillako artueman edo lotura bat : gure aberria bat eta berbera izatetik datorrena. Euskaldunok ba dugu or ukatu ezinezko kidetasun bat : aberkide gera euskaldunak geran aldetik . Eta Euskalerrriaren arazoak geureak dira. Euzkadi'ko eginkizunari uko egitea , gerekoikerian erortzea da. Eta, denbora berean, España'ren jokoa egitea.

Halere, gauza ezaguna da Arizmendiarrrieta'k aspaldiko bere abertzaletasuna zokoratu egin duela ; eta Arrasate'n euskera baztertu egin dala, España'ko kondaira español modura erakasten dala, eja, itz batez, españolkeria baizik ez dala zabaltzen.

Beste alde batetik euskaldun langillea langille-klaseko lagun bat da. Langilleen problemak bere problemak dira. Eta txatxukeria da klasearen problemak eta kooperatibakoak berezte. Ots : haxe gertatzen ari da. Kooperatiba bakoitza mundutxo zirtzil bat biurtzen ari da : langilleek ez dute nai ere izaten gainerako langilleekin bat egin. Oporjeta gertatzen danean, kooperatibetako langilleek ez dute atera nai izaten ; ze berek ez omen dute problemarik Zer da jokabide ori ? Oraindik ere entzun bearko al dugu kooperatibismoa dala langilleen soluzioa, eta kapitalismoaren eriotza ?

Kapitalismoaren babesean egiten dan kooperatibismoa, saldukeri utsa da ; ez du ezertarako balio ezpada langille-klasea zatikatzeke, zokokeria geitzeko (gu gure zokoan ongi bizi gera ; besteak or konpon), eta kapitalismoari koipe piska baten bidez indarra eta iraupena emateko baizik.

Esan dezagun goratik : euskaldun langilleen soluzioa ezin diteke etorri, eta ez da etorriko, Arizmendiarrrieta'ren bide salduetatik. Baizik bai euskaldun gisa eta bai langille gisa, ANAIEKIN BAT egiaz Euzkadi askatu eta sozialista bat sortuz.

Tx.